



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

**JON GIL BELTZA JAUNAK, JON GIL BELTZA, LICENCIADO EN
ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUNA, DERECHO, SECRETARIO-
ASTEASUKO UDALEKO BITARTEKO INTERVENTOR INTERINO DEL
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK, EXCMO. AYUNTAMIENTO DE
ASTEASU,**

ZIURTATZEN DU:

AFAre 206 atalaren salbuespenarekin: Udalbatzak, 2021eko otsailaren 23ko bilkuran, beste gai batzuren artean, ondorengo erabakia hartu zuela:

CERTIFICA:

Que, con la salvedad del art. 206 del R.O.F., el Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada con fecha 23 de febrero de 2021, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

Foru Diputatuen Kontseiluak 2008/10/21ean hartutako erabakiaren bidez, 2008ko maiatzeko "Asteasuko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina" onartu zen (GAO, 2009/01/15). Dokumentu horren arau-planoak 2018ko apirilaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Mediante acuerdo del Consejo de Diputados Foral, adoptado en sesión de 21/10/2008, se aprobó el "Texto Refundido de la Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Asteasu" de fecha mayo de 2008 (BOG 15/01/2009). Los planos normativos del citado documento fueron publicados en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 30/04/2018.

Foru Diputatuen Kontseiluak 2012/07/27an hartutako erabakiaren bidez, behin betikoz onartu zen Asteasuko Plangintzako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala (A.I.U. A-7, A.I.U. E-1 eta 111. Araudia) (GAO, 2012/09/20).

Mediante acuerdo del Consejo de Diputados Foral, adoptado en sesión de 27/07/2012, se aprobó definitivamente la Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Asteasu (A.I.U. A-7, A.I.U. E-1 y art. 111 de la Normativa) (BOG 20/09/2012).

Foru Diputatuen Kontseiluak 2017/01/24an hartutako erabakiaren bidez, behin betikoz onartu zen "Asteasuko Plangintzako Arau Subsidiarioen 2. aldaketa puntualaren

Mediante acuerdo del Consejo de Diputados Foral, adoptado en sesión de 24/01/2017, se aprobó definitivamente el «Texto Refundido de la 2.ª Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de

testu bategina, A.I.U E-4 hirigintza-jarduerarako eremua", 2016ko ekainean idatzitako dokumentuaren arabera (GAO, 2017-03-07).

Foru Gobernu Kontseiluak 2017ko urtarrilaren 24ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, behin betikoz onartu zen "Asteasuko Plangintzako Arau Subsidiarioen 3. aldaketa puntuala, industria-lurzoruaren eraikuntza-parametro jakin batzuei buruzkoa", Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak 2016ko uztailaren 12an emandako nahitaezko txostenean uren arloan ezartzen ziren baldintzekin (2017ko maiatzaren 8ko GAO).

Hirigintza eta Obretako Informazio Batzordeak, 2021/02/17ko bilkuran, irizpen hau eman du: "Indarreko Asteasuko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen garapen-mailari eta egungo hirigintza-araudira egokitzeari buruzko txosten diagnostikoa" onartzea, Asteasuko Udalak hala eskatuta Soroa Arquitectos SLk 2020ko urrian egindakoa. Horretan ondorioztatu da Arau Subsidiarioak berrikusi behar direla, eta horiek berregituratu behar direla Hiri Antolamenduko Plan Orokor batean.

Era berean Batzorde horrek Udaleko alkateari ahalmena eman dio herritarren partaidetzarako programa proposamen bat egiteko. Programa horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan aurreikusitako mekanismoak agertuko dira.

Planeamiento de Asteasu, Área de Intervención Urbanística A.I.U E-4», según documento redactado en junio de 2016 (BOG 7/03/2017).

Mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral, adoptado en sesión de 24 de enero de 2017, se aprobó definitivamente la "3.^a Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Asteasu referida a determinados parámetros edificatorios del suelo industrial" con las condiciones que en materia de aguas se establecían en el informe preceptivo de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico emitido el 12 de julio de 2016 (BOG 8/05/2017).

La Comisión Informativa de Urbanismo y Obras, en sesión celebrada el 17/02/2021, ha dictaminado aprobar el "Informe Diagnóstico referido al grado de desarrollo de las Normas Subsidiarias de Planeamiento municipal de Asteasu vigentes y su adecuación a la normativa urbanística actual", formulado a instancia del Ayuntamiento de Asteasu por Soroa Arquitectos, S.L. en octubre de 2020. Del mismo se concluye la necesidad de revisar las Normas Subsidiarias y su reestructuración en forma de Plan General de Ordenación Urbana.

Así mismo, esta Comisión ha facultado a la Sra. Alcaldesa del Ayuntamiento para que formule una propuesta de programa de participación ciudadana en el que figuren los mecanismos previstos en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco y en el Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Alkate andreak, 2021/02/10ean egindako memoriaren bidez, erantsi dion herritarren partaidetzarako programa onartzea eta Asteasuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren formulaziori hasiera emateko proposamena egin du.

Udaleko Bitarteko Idazkari Kontu hartzaileak 2021/02/12ko txosten-proposamena eman du; horretatik alderdi hauek ondorioztatu daitezke:

- Asteasuko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren formulazioa beharrezkoa dela.
- Asteasuko Udalari dagokiola hori formulatzea.
- Formulazio-akordioan Asteasuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiteko, izapidetzeko eta onartzeko prozesuan administrazioaren koordinazioa eta herritarrek parte hartzeko programa sustatzeko behar diren neurri eta jarduerak zehaztu behar direla.
- Beharrezkoa izango dela udal-zerbitzuen eta lizitazio publiko egokiaren ondoriozko plangintza idatziko duen taldearen arteko lankidetzak, emandako txostenean jasotako terminoetan.
- Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura bete beharko duela, ingurumen-ebaluazioaren arloan indarrean den araudian aurreikusitako baldintzetan.

Ikusirik emandako txostenak.

La Sra. Alcaldesa ha emitido memoria de fecha 10/02/2021, en el que propone la aprobación del programa de participación ciudadana que adjunta, y el inicio de la formulación del Plan General de Ordenación Urbana de Asteasu.

El Secretario Interventor Interino municipal ha emitido informe-propuesta de fecha 12/02/2021. Del mismo se desprenden los siguientes aspectos:

- Que resulta necesaria la formulación del Plan General de Ordenación Urbana de Asteasu.
- Que compete al Ayuntamiento de Asteasu su formulación.
- Que en el acuerdo de formulación se deben determinar las medidas y actuaciones precisas para fomentar la coordinación administrativa y el programa de participación ciudadana en el proceso de elaboración, tramitación y aprobación del Plan General de Ordenación Urbana de Asteasu.
- Que será necesaria la colaboración de los servicios municipales con el equipo redactor del planeamiento que resulte de la licitación pública oportuna, en los términos que señala el informe emitido.
- Que el Plan General de Ordenación Urbana deberá someterse al procedimiento de evaluación ambiental estratégica, en los términos previstos en la normativa vigente en materia de evaluación ambiental.

A la vista de los informes emitidos.

Ekainaren 30eko Lurzoria eta Hirigintzaren 2/2006 Legean, eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituenen jasotakoarekin bat.

De conformidad con lo dispuesto en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, y en el Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística.

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean eta Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean xedatutakoarekin bat etorri.

De conformidad con lo dispuesto en la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental, y la Ley 3/1998, de 27 de febrero, de Protección General del Medio Ambiente de País Vasco.

Apirilaren 2ko Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.c) artikuluan jasotakoarekin bat.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 22.2.c) de la Ley 7/1985, de 4 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

Hirigintza eta Obretako Informazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Previo dictamen de la Comisión Informativa de Urbanismo y Obras.

Gauzak horrela, Udalbatzarrak

Por todo ello, el Pleno del Ayuntamiento

ERABAKIA HARTU DU

HA ACORDADO

LEHENENGOA. Asteasuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearen formulazioa onartzea.

PRIMERO. Aprobar la formulación del Plan General de Ordenación Urbana de Asteasu.

BIGARRENA. Asteasuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiteko, izapidetzeko eta onartzeko prozesuan jarraitu beharreko Herritarren Partaidetzarako Programa onartzea.

SEGUNDO. Aprobar el Programa de Participación Ciudadana a seguir en el proceso de elaboración, tramitación y aprobación del Plan General de Ordenación Urbana de Asteasu.

HIRUGARRENA. Babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta natura-ingurunearen gaineko eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko organoei informazioa eskatzea, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk

TERCERO. Solicitar de los órganos del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral de Gipuzkoa con competencias sobre protección civil, el medio ambiente, el patrimonio cultural y el medio natural la información sobre riesgos existentes y los condicionantes medioambientales, de protección del patrimonio cultural y del



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko.

LAUGARRENA. Asteasuko Udaleko Idazkaritzari agintzea has ditzala Asteasuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiteko eta idazteko kontratuaren lizitazioa prestatzeko lanak.

BOSGARRENA. Asteasuko Udalari lotutako edo haren mendeko udal-sail, entitate, organismo publiko eta zuzenbide publiko eta pribatuko entitate guztiei, bai eta kanpoko zerbitzuei ere, Asteasuko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra lantzeko eta idazteko beharrezkoak diren baliabideak eskura jartzeko eta lankidetzan aritzeko eskatzea, Idazkaritzaren txostenean jasotako terminoetan.

SEIGARRENA. Erabaki hau eta herritarren partaidetzarako programa Asteasuko Udalaren webgunean argitaratzea.

ZAZPIGARRENA. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

medio natural que deban ser respetados por su ordenación.

CUARTO. Encargar a la Secretaría del Ayuntamiento de Asteasu para que inicie los trabajos preparatorios para la licitación del contrato de elaboración y redacción del Plan General de Ordenación Urbana de Asteasu.

QUINTO. Solicitar a todos los departamentos municipales, entidades, organismos públicos, entidades de derecho público y privado vinculados o dependientes del Ayuntamiento de Asteasu, así como a los servicios externos la colaboración y puesta a disposición de los recursos necesarios para la elaboración y redacción del Plan General de Ordenación Urbana de Asteasu, en los términos señalados en el informe de Secretaría.

SEXTO. Publicar el presente acuerdo y el programa de participación ciudadana en la página web del Ayuntamiento de Asteasu.

SÉPTIMO. Notificar el presente acuerdo a los interesados.

Eta horrela jasota gera dadin, eta behar diren ondorioetarako, honako ziurtagiria luzatzen dut, Alkate Andreamen oniritziarekin, Asteasun, 2021eko martxoaren 2an.

Y para que así conste, y surta los efectos oportunos, emito el presente certificado, con el visto bueno de la Sra. Alcaldesa, en Asteasu, a 2 de marzo de 2021.

O.I. / V^oB^o

ALKATE ANDREA / LA ALCALDESA